

KLAUSULA-EREDUA



AURKEZTEKO DEBEKUA

Diru-laguntzen deialdi honetan aurkeztetik kanpo geratuko dira honako hauek:

- Helburuetan, kideak onartzeko sisteman, funtzionamenduan, ibilbidean, jardueretan, antolaketan edo estatutuetan emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren printzipioa urratzen duten pertsona fisiko edo juridikoak.
- Sexu-bereizkeria egiteagatik administrazio-zehapena edo zehapen penala dutenak, eta 4/2005 Legearen itzalpean debeku horrekin zehatutakoak.
- 4/2005 Legean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoan, edo 3/2007 Lege Organikoan, martxoaren 22koan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarrirakoan, ezarritako betebeharrak betetzen ez dituzten entitate edo enpresak.
- Kideak onartzeko prozesuan edo bere funtzionamenduan sexu-arrazoiengatiko diskriminazioa egiten duten elkarteak.

Debekua ezartzeko, honako arau hauetan xedatutakoa hartu da kontuan: 4/2005 Legearen, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoaren, 3.1. eta 24.2. artikulua; 38/2003 diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 13.3. artikulua; 1/1997 Legegintza Dekretuaren,

Euskadiko Ogasun Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duenaren, 50.5. artikulua; 1/2002 Lege Organikoaren, martxoaren 22koaren, elkartzeko eskubidea arautzekoaren, 4. artikulua; 3/2007 Foru Arauaren, martxoaren 27koaren, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoaren, 12. artikulua; eta 5/2005 Foru Arauaren, maiatzaren 31koaren, Bizkaiko Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duenaren, 12. artikulua.

